



ZJ2 Kontrm3

## LESAKAKO UDAL MUSIKA ESKOLAN KLASEAK EMATEKO KONTRATUA

2015eko ekainaren 23an, asteartea, goizeko 12:30 orduak direnean, Andoni Esparza Leibar, Lesakako Udalaren idazkariarengana, lagun hauek etorri dira:

Alde batetik Lesakako alkatea, José Luis Echegaray Andueza, Udal honen izenean.

Bestetik, Gaizka Sarasola Iartzabal, 72668590 - K zenbakiko Nortasun Agiri Nazionalarekin. Sarasola jauna Tobera Musika Iharduerak S.L.L. izenean aritzen da, 2013ko maiatzaren 28an María Teresa Pérez Dapena Lesakako notarioaren aurrean egindako eskrituraren arabera (251 zenbakia bere protokoloan). Elkarte honek B-31855802 Identifikazio fiskaleko kodea du eta helbidea Lesakako Plaza Berriko 4. zenbakian (Vicuña Enean etxean).

Bi parteek, aho batez, zera esan dute:

Lesakako Udalaren Osoko Bilkurak, 2015eko martxoaren 30ean egindako bileran, Musika Eskolako klaseak emateko kontratua esleitzeko Baldintza Plegua onartu zuela.

Ekainaren 8ko 228/2015 zenbakiko Alkatetzaren Ebazpenak, Tobera Musika Iharduerak S.L.L. enpresari kontratua esleitu zion.

Geroztik, enpresak agiri hau ekarri du:

- Baldintza Pleguaren 8. artikulua ezarritakoren arabera, bermea 4.800 eurokoa da eta 2015eko ekainaren 22an Lesakako Caja Laboral Popularrek egindako agiria.


Bestalde, Lesakako Udaleko Jarduera Ekonomikoen Zergaren Erregistroan altan emanak daude.

Hori dela eta, kontraturako baldintza hauek ezartzen dira:

- 1.) Kontratua 2015-2016 ikasterterako izango da, hau da: 2015eko urritik, 2016ko ekainaren 30eraino.
- 2.) Prezioa ehun eta hoge mila eurokoa izango dela (120.000,00 €).
- 3.) Balore Erantsiaren gaineko Zerga dela eta, printzipiotz kontrato honek ez du ordaindu behar. Hala ere, aipatutako B.E.Z. ordaintzea beharrezkoa izango balitz, aipatutako prezioaren barne egongo lirateke. Kasu horretan Udalaren urteko ordainketa 120.000 eurokoa (B.E.Z. barne) izango litzateke.

Hori dena dela eta, ekitaldi honetan parte hartzen duten aipatutako lagunek kontratu hau eta Baldintza Plegua, bere orri guztietan, sinatu dute. Agiri hauen bi egiazko ale egiten dira, bakoitzak berea izateko.

Guzti hori nik, idazkariak, ziurtatzen dut.



**TOBERA MUSIKA IHARDUERAK, S.L.L.**  
C.I.F. B-31855802  
Plaza Berria, 4  
31770 LESAKA (Nafarroa)

